

JOKABIDE KODEA

Fagor Electronica Taldea

kanaletikoa@fagorelectronica.es

ethicalchannel.th@fagorelectronics.co.th

canaletico.mx@fagorelectronics.com.mx

BERRIKUSPENEN HISTORIA		
EDIZIOA	DATA	ALDAKETAREN DESKRIBAPENA
1	2017.07.17	Onarpena
2	2020/02/11	Eredu korporatiboko sistemara egokitzeko berrikuspena
3	2022.07.21	Misioa eguneratzea eta "Fagor Electronica Taldea" izena jartzea
4	2022.07.22	"Mesedeei eta Opariei buruzko Politika", "Interes Gatazken Politika" eta zehapenetan inplikaturako Batzordeak sartu
5	2025.09.24	Misioa eguneratzea eta antolamendu berrira egokitzea

Aurkibidea

I. Helburua	3
II. Aplikazio eremua	3
III. Printzipio etikoak	3
1. Jokabide arau orokorrak	3
2. Portaera lege eta arauen esparruaren barruan	4
3. Lan harremanak	4
4. Interes gatazka	4
5. Ingurumena	4
6. Eroskeriaren eta ustelkeriaren aurkako neurriak	5
7. Informazio konfidentziala eta sekretuan gorde beharra	5
8. Erregistro eta osotasun finantzarioa	6
IV. Betetzea	6
1. Komunikazioa	6
2. Kontratu balioa	7
3. Kanal etikoa	7
4. Zehapenak	7
5. Indarraldia eta eguneraketa	7

I. Helburua

Jokabide Kode honen helburua da ezartzea zer portaera jarraibidek gidatu behar duten Fagor Electronica Taldeko langileek interes taldeei lotuta egunero egiten duten lana.

- Erakundeko pertsonen arteko harremanak;
- Pertsona horiek bezeroekin, hornitzaileekin eta kanpoko laguntzaileekin egiten dituzten jarduerak, eta;
- Erakunde publiko eta pribatuekin eta gizartearekin oro har dituzten harremanak

II. Aplikazio eremua

Fagor Electronica Taldearen matrizean eta filialetan ari diren langile guztiak, baita bazkide ez-aktiboak eta bazkide laguntzaileak ere, berdin dela zein den haien erantzukizuna, erakundeko posizioa, kontratu mota (lan harremana edo bazkide harremana) edo jarduera garatzen ohi duten lekua.

Era berean, Fagor Electronica Taldearekin elkarlanean ari diren hornitzaileak beren jokabide kodea lantzerantz bultzatuko dira.

III. Printzipio etikoak

1. Jokabide arau orokorrak

Fagor Electronica Koop. E.k [Balio Korporatiboak](#) sartzen ditu ohiko funtzionamendurako dituen jarraibideetan. Balio horiek, [Arrasateko Esperientzia Kooperatiboaren Oinarriko Printzipioekin](#) (MONDRAGONeko Kongresu Arauetan jasota daude) koherente izanik, norabide komunean gidatzen dituzte pertsona guztiak, MONDRAGON Korporazioaren parte diren heinean proiektu kolektibo horretan duten erantzukizuna gauzatzean.

Marko horretatik abiatuta, eta Fagor Electronicaren misioarekin koherente izanik:

“Produktu, zerbitzu eta soluzio elektroniko eta digitaletako talde sozioenpresarial jasangarria garatzea, honako hauekin konprometituta:

- *Lehiakortasuna hobetzearekin.*
- *Berrikuntzarekin.*
- *Bezeroa asebetetzearekin.*

oinarriak hauek izanda:

- *personak gure proiektuaren erdigunean.*
- *ekipo proaktiboak eta erantzunkideak.*

lankidetzaz sustatuz aberastasuna sortzeko eta gizartea eraldatzeko”,

Fagor Electronica Taldeko enpresen **kultura eta kudeaketa estiloa** sortzen da, zeina langile guztientzat antzekoak diren 5 balio eta portaeratan oinarritzen baita: *Bezeroari entzutea, Konpromisoa, Aldaketara irekita, Konfiantza eta Lankidetzaz*

2. Portaera lege eta arauen esparruaren barruan

Jarduera profesionalen garapenean, Fagor Electronica Taldeko pertsona guztiek erakundean eta erakundearen beraren jardueran aplikatu beharreko legeak, erregelamenduak eta barne arauak (Estatutu Sozialak, Barne Araudia...) bete beharko dituzte. Zalantzarik baldin badago, aholkularitza eskatu beharko diete erakundeak kasuan kasuko gaiaren gainean espezializatuta dituen arloei.

Konpromiso hori erakundeko pertsona guztiek betetzea espero den portaera etikoaren oinarria da.

Fagor Electronica Taldeko edozein pertsonak, legea haustera behartu edo bultzatzen baldin badute, bere arduradunari edo Pertsonen Sailari jakinarazi beharko dio berehala.

3. Lan harremanak

Fagor Electronica Taldeak lan ingurune segurua eta segurtasuna eta osasun fisiko eta psikologikoa nahastuko dieten arriskurik gabea bermatu beharko die bere langileei. Fagor Electronica Taldeak, osasunarekin eta segurtasunarekin duen konpromisoa betetz, Lan Arriskuen Prebentziarako Plan bat eta [Gatazkei eta Jazarpenei aurre egiteko Jarduera Protokolo](#) bat ditu.

Modu berean, Fagor Electronica Taldeak bere kide guztiei lanerako, promoziorako eta garapenerako aukera berdinak izango dituztela bermatuko die, haien lan harremana edo harreman sozietarioa edo haien sexua, jatorria eta erlijioa edozein dela ere.

Langileen kontratazioari dagokionez, Fagor Electronica Taldeak agintzen du:

- Ez duela adingaberik kontratatuko, ulertuta adingabeak 16 urte baino gutxiagokoak direla, ez bada bertako legeriak goragoko adin muga bat jartzen duela. Kasu horretan, goragoko muga errespetatuko da.
- Ez duela behartutako lanera joko, ulertuta behartutako lana dela norbaitek zigor mehatxupearan edo bere gauzak (NAN, pasaporte, etab.) konfiskatu dizkiotelako egiten duena edo pertsonak bere burua borondatez eskaini gabe egiten dena.

4. Interes gatazka

Erakundeak errespetatu egiten du bertako langileek beste gizarte, finantza eta enpresa jarduerak batzuetan parte hartzea edo kargu publikoak izatea, baldin eta jarduerok legezkoak badira, lehia desleialik ez badakarte, langileek Fagor Electronica Taldean dituzten erantzukizunekin talka egiten ez badute eta langileon independentzia eta dedikazio profesionala baldintzatzen ez badute. Egoeraren batek zalantzarik sortuz gero, langileak goragoko arduradunari jakinarazi beharko dio eta Kontseilu Errektoreari baimena eskatu.

Fagor Electronica Taldeak [Interes Gatazken Prebentzioko Politika](#) bat du.

5. Ingurumena

Ingurumenaren babesa da Fagor Electronica Taldearen oinarritzko printzipioetako bat, eta, zentzu horretan, Ingurumeneko Politika bat eta Ingurumeneko Jokabide batzuk definitu ditu, zeinak ["Ingurumen Kalitateko eta Segurtasuneko Politika"](#) dokumentuan bilduta dauden. Horretaz gain, ingurumena kudeatzeko sistema bat dauka ezarrita.

Ingurumenaren babesari buruzko barne arau eta prozeduren ganean emango diren ezagutzak orokorrak izango dira, eta enpresaren intranetean argitaratuz jakinaraziko zaizkie langileei. Modu zehatzean ere jakinaraziko zaizkie langileei, bakoitzari bere lanpostua betetzeko ematen zaion prestakuntza prozesuaren barruan.

Fagor Electronica Taldeko langile guztiek zaindu beharko dute ezarritako prozedurak betetzen direla, eta arriskurik edo arau hausterik dagoela jakinez gero goragokoei edo ingurumenaren kudeaketaren arduradunei jakinarazi beharko diete.

6. Eroskeriaren eta ustelkeriaren aurkako neurriak

Fagor Electronica Taldeko pertsonak ez dute, inondik inora ere, etikoak ez diren jardunbideetara joko hirugarrenen borondatean eragiteko eta erakundearentzat edo beraietzat etekinen bat eskuratzeko.

Ezin da, inondik ere, eskudiru, jenero edo beste edozein etekin bidezko ordainketarik onartu, eskaini edo entregatu –ez zuzenean ez zeharka– baldin eta tartean erakunde publiko nahiz pribatu baten zerbitzura diharduen pertsona bat, edo kargu publiko bat hartzeko hautagai bat badago, eta asmoa negozioak edo beste abantaila batzuk legez kontra eskuratzea edo mantentzea baldin bada.

Fagor Electronica Taldeko pertsonak aplikatu beharreko legeen arabera jardun behar dute, eta inondik inora ere ez dute onartuko hirugarrenek erakundeari nahiz bertako langileei edo alderantziz eroskeriarik egitea.

Opariak, gonbidapenak eta adeitasun seinaleak soilik hartuko dira, edo entregatuko, tartean erakundearen bidezko interesak daudenean, eta sozialki onargarriak direnean; hots, publikoki ezagutzera emanez gero, jasotzailea edo emaila ez da egindakoarekin deseroso sentituko.

Fagor Electronica Taldeak [Ustelkeriaren Aurkako Politika](#) bat, [Babesletza eta Dohaintzen Politika](#) bat eta [Mesedeei eta Opariei buruzko Politika](#) bat ditu neurri horiek betetzen direla bermatzeko

7. Informazio konfidentziala eta sekretuan gorde beharra

Informazio konfidentzialtzat joko da:

- Kooperatibaren barruan berariaz konfidentzialtzat jotako informazioa eta hirugarrenek konfidentzialtasun akordio baten pean Fagor Electronica Taldeko enpresei emandakoa.
- Langileei, bezeroei, hornitzaileei eta Fagor Electronica Taldearekin lotutako gainerako hirugarren pertsonen buruzko datuak, Fagor Electronica Taldeak edo datuen jabeek publikoki zabaldu ez dituztenak.
- Fagor Electronica Taldearen arloetako jardurekin lotutako dokumentazioa, arlo horiek publikoki zabaldu ez dutena.

Langile guztiek bete behar dute haien jardunean kudeatzen den informazio guztiaren diskrezio, sekretu eta konfidentzialtasun betebeharra. Ezein langilek, kontratu harremanak irauten duen bitartean, baita kontratu harremana amaitu eta gero ere, ez du informazio konfidentzialik zabalduko Fagor Electronica Taldearen baimenik gabe.

Fagor Electronica Taldeko langile guztiek hirugarrenen jabetza intelektuala eta industrialaren errespetatzeko konpromisoa hartzen dute

Fagor Electronica Takdeko langileren batek informazio konfidentziala hirugarrenekin partekatu behar badu, dela zuzenean, dela zeharka, bere arduradunaren baimena beharko du aldez aurretik.

Datuen babesari buruz aplikatu beharreko legeria eta dauden konfidentzialtasun konpromisoak betez, Fagor Electronica Taldeak agintzen du bere langileei eta alderdi interesdunei buruzko informazio guztia babestuko duela eta Datuen Babesari buruzko Europako Erregelamenduan ezarritakoa beteko duela.

8. Erregistro eta osotasun finantzarioa

Fagor Electronica Taldearen transakzio, egintza eta ekitaldi guztiak argi eta zehatz adierazita egon behar dira erakundearen erregistroetan, araudi aplikagarriaren arabera.

Informazio hori modu egiaiti, oso eta ulergarrian transmititu behar da. Inondik inora ere ez da helaraziko –jakinean egonda– hartzailea tronparazi dezakeen informazio oker edo zehaztugaberik.

Gure finantza auditoreekin eta informazioa eskatzen diguten organo eskudunekin gauza guztietan kooperatzeaz gainera, Zaintza Batzordeak ikuskapen bat egingo du aldizka, informazio finantzarioaren fidagarritasuna eta erakundearen erregistroen zehaztasuna bermatzeko.

IV. Betetzea

1. Komunikazioa

Jokabide Kodea bide hauen bitartez jakinarazten da nagusiki:

- Langile berrientzako Harrera Planaren bitartez. Kontratuen eranskin moduan jasotzen da Jokabide Kodea, eta lanean sartu aurretik berariaz onartu behar du langileak.
- Jokabide Kodean aldaketak egiten diren bakoitzean, unean uneko jakinarazpenen bitartez. Jakinarazpen horiek eskema honi jarraituta egingo dira:

ZEREGINA		KANALA	ARDURADUNA
1	Kontseilu Errektoreari jakinaraztea	Kontseilu Errektorea	Gerentea
2	Kontseilu Sozialari jakinaraztea	Kontseilu Soziala	Kontseilu Errektoreko lehendakaria
3	Zaintza Batzordeari jakinaraztea	Bilera espezifikoa	Kontseilu Errektoreko lehendakaria
4	Langile guztiei jakinaraztea	Kontseilutxoak	Kontseilu Sozialeko kidea
5	Filialei jakinaraztea	Bilera espezifikoa	Pertsonen Zuzendaritza (Plantako Zuzendaritzari) Plantako zuzendaritza (barne komunikazioa)

2. Kontratu balioa

Langile guztiei eskatzen zaie Jokabide Kodea ezagutzeko eta Kodean jasotzen diren printzipioen arabera jokatzeko; baita betearazteko eta, hala badagokio, ez-betetzeak salatzeko ere.

3. Kanal etikoa

kanaletikoa@fagorelectronica.es / ethicalchannel.th@fagorelectronics.co.th

canaletico.mx@fagorelectronics.com.mx

Langile guztiei komunikaziorako bide bat emateko, lerro hierarkikoaz gain badago Plantako Pertsonen Sailak kudeatzen duen barneko kanal konfidentzial bat, zeinaren bitartez langileek interpretazioan sor litezkeen dudak planteatu, zalantzarako egoerak argitzeko eskatu eta printzipio etikoen urraketa posibleak salatu ditzaketen.

4. Zehapenak

Jokabide Kode honetan jasotako printzipio etikoren bat betetzen ez duten langileei zigorra ezarriko zaie, barne araudian xedatzen denaren arabera; horrek ez du esan nahi, ordea, arau hausleari beste erantzukizun batzuk egotzi ahal izango ez zaizkionik.

Hauek dira salaketak edo ez-betetze egoerak aztertu, ebaluatu, arbitratu eta irtenbideak proposatzeaz arduratzen diren batzordeak:

- Gatazkak eta Laneko Jazarpen eta Indarkeria Egoerak Kudeatzeko Batzordea, lan eremuan pertsonen artean gertatzen diren edozein eratako gatazka egoerei aurre egiteko
- Betetze Batzordea, delituren bat egin denean edo Taldearen Jokabide Kodean eta politiketan aitortutako printzipio eta balioetako bat urratu denean

5. Indarraldia eta eguneraketa

Jokabide Kode hau azalean agertzen den onarpen egunetik dago indarrean.

Jokabide Kodea langileentzat aplikagarria izango da onarpenarekin batera egindako hasierako komunikazio masibotik aurrera; eta langile berrientzat, lanean hasterakoan, harrera plana jakinarazten zaienean.

Planta Pertsonen Zuzendaritzak aldaketa proposamenak aztertzen ditu eta, urtean behin, Jokabide Kodea berrikusten du. Berrikuspenaren ondorioz, Jokabide Kodea eguneratzea gerta daiteke, eta Kontseilu Errektoreak onartuko du beti eguneratze hori. Aldaketak langile guztiei jakinarazten zaizkie IV-1 atalean azaldutako kanalen bitartez.